

Rev	Fecha aprobación y entrada vigor
1	2018-09-01

Lantaldearen lan plangintza

taldea: **KONPETENTZIAK**

ikasturtea: **2019-2020**

1. Sarrera

PARTAIDEAK: Itziar Otaño, Nuria González

AURREKARIAK: Duela lau urte hasi ginen talde honetan konpetentzien inguruko ebaluazioa aztertzen. Ekoiztutako bi PAM-ak (probak eraldatu eta ebaluazio hezitzailea) hainbat ikastetxeetan eta mintegi gisa aurrera eramaten ari gara. Pasa den ikasturtean "PAM 303 |EBALUAZIO HEZITZAILEA: PORTFOLIOA, IKASKUNTZA DOKUMENTATZEKO TRESNA" Pam-a diseinatu eta mintegi bat aurrera eraman genuen. Bestalde, PAM-ekin lotutako bi site ditugu: Probak eraldatu (Bigarren Hezkuntza) eta Ebaluazio Hezitzailea (Haur eta Lehen Hezkuntza).

IKASTURTE HONETAKO ASMOAK: PAM 303 kontsolidatuko dugu ikastetxeetan pilotatuz. Beste aldetik, Portfolio orria Ebaluazio Hezitzailearen site-ari gehitu eta osatuko dugu. Gainera, zehar konpetentzien osagaiak aztertu, baloratu eta Ikasten Ikasteko Konpetentzia taldeko partaideekin koordinatuta MINI-PAM-a sortuko dugu. Azkenik, ebaluazioa dela eta arazo-egoeren familien bilduma ere egitea aurreikusten dugu.

ANTOLAKETA:

Orokorrean, talde bezala Kapildui gelan bilduko gara hamabostean behin ostiraletan 9:00-etatik 11:00-etara. Hainbat saioetan koordinatuko gara Ikasten ikasteko taldearekin.

Taldean momentuz Bigarren Hezkuntzako ordezkariak ez dago.

2. Lantaldean ekoiztu nahi diren dokumentuak

- "PAM 303 |EBALUAZIO HEZITZAILEA: PORTFOLIOA, IKASKUNTZA DOKUMENTATZEKO TRESNA" osatu pilotajearen ondoren.
- Portfolio orria gehitu Ebaluazio Hezitzailearen site-ari.
- Ikasten Ikasteko Konpetentzia ebaluatzeko MINI-PAM-a sortu.
- Arazo-egoeren familien bilduma sortu eta Site-an eskegi.

3. Ikastetxeetan aurreikusten diren esku-hartze nabarmenenak

"PAM 303 |EBALUAZIO HEZITZAILEA: PORTFOLIOA, IKASKUNTZA DOKUMENTATZEKO TRESNA" :

- CEIP MARITURRI HLHI
- CEIP LABASTIDA HLHI

4. Prestakuntza ekintzak: taldekideek emango edota kudeatuko dituzten ikastaro eta mintegiak

- EBALUAZIO HEZITZAILEA: PORTFOLIOA, IKASKUNTZA DOKUMENTATZEKO TRESNA mintegia. (15 ordu)
- EBALUAZIO HEZITZAILEA: PORTFOLIO TRESNA ERABILIZ. IKASTETXE BATEKO ESPERIENTZIA. Mikel Etxarri. Saio puntuala. (2,5 ordu)
- PENTSAMENDUA IKUSGAI EGITEN. María Galdeano. Saio puntuala. (2,5 ordu)